

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4486

EBAZPENA, 2014ko urriaren 15ekoa, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduan xedatutako laguntzen emakida ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei diru-laguntzak ematea arautzen da, paisaiarako ekintza planak presta ditzaten.

2014ko ekainaren 30ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 122. zk.) Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Agindua, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei diru-laguntzak ematea arautzen baita, paisaiarako ekintza planak presta ditzaten. Agindu hori 2014ko uztailaren 29ko Aginduen bidez aldatu zen eta azken hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 143. zk.) argitaratu zen.

Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 25ean amaitu zen, diru-laguntzak ematea arautzen duen agindu horretako 4.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ondorio hauetarako 2014ko uztailaren 29ko aginduan aldatu eta gero. Horrela izanik, 34 eskaera egin dira eta zerrenda honetakoak dira:

	Udala	Proiektuaren titulua
1	Asparrena	Ajuria eta Urigoitia lantegiaren PEP
2	Aramaio	Aramaioko udalerriko PEP
3	Burgelu	Burgeluko udalerriko PEP
4	Alegria-Dulantzi	Alegria-Dulantziko PEP
5	Zambrana	Portillako PEP
6	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz udalerriko PEP
7	Salvatierra	Aguraingo udalerriko paisaia osatzeko plana
8	Erriberagoitia	Errigeragoitiko Udalaren PEP
9	Amurrio	Amurrioko PEP
10	Iruña Oka	Iruña Okako udalerriko PEP
11	Gorliz	Gorlizko udalerriko paisaia edertzeko plana
12	Markina-Xemein	Markina-Xemeingo udal-mugarteko PEP
13	Muskiz	Kostaldeko meatzaritzako PEP
14	Amorebieta-Etxano	Ibaizabal ibaiko ibarretako PEP
15	Urduña	Urduñako udalerriko PEP
16	Zalla	Zalla udalerriko PEP
17	Busturia	Busturiko PEP
18	Barrika	Muriola-Barrikabaso-Barrikako San Telmo kostaldeko sektorearen PEP
19	Valle de Trápaga-Trapagaran	Meatzaritza, altzairu, trenbide eta gerrako PEP
20	Larrabetzu	Larrabetzuko lurraldeko PEP
21	Bilbao	Bilboko Udalaren PEP
22	Ea	Eako lurraldeko PEP

	Udala	Proiektuaren titulua
23	Lekeitio	Lekeitioko ipar-kostaldeko PEP
24	Errenteria	Oiartzun ibaiaren inguruko PEP
25	Elgoibar	Elgoibarko PEP
26	Tolosa	Tolosako udal-mugarteko PEP
27	Orexa	Orexa udalerriko PEP
28	Mutiloa	Peatza-Troiko PEP
29	Urniet	Urnietako udalerriko PEP
30	Urretxu	Irimoko zonaldeko PEP
31	Deba	Debako paisaiako PEP
32	Orio	Orioko PEP
33	Zerain	Zeraingo PEP
34	Getaria	Getariako udalerriko kostaldeko PEP

Diru-laguntza hauek arautzen dituen ekainaren 24ko agindu horretako 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, urriaren 8an horretarako balorazio-epaimahaia sortu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikuluko horretako 2. atalean xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

Arestian aipatutako 2014ko ekainaren 24ko agindu horretako 15. artikulua xedatzen du diru-laguntzak emateko kopurua guztira 280.000 euro dela, 13. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza planetako ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, ondorio gisa, 2014ko urriaren 8an, 7.3. artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta I. eranskinean adierazitako puntuazioa, barne hartuta zein udal den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den. Halaber, aipatutako proposamenean zerrendatzen dira ukatzeko diren eskaerak, zergatik ukatzen diren adierazita.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko udalei diru-laguntzak ematea arautzen baita, paisaiarako ekintza planak presta ditzaten; eta horretarako eratutako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Paisaiarako ekintza planak egiteko diru-laguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta adierazitako zenbatekoan:

	Udala	Proiektuaren titulua	Proposatutako zenbatekoa
1	Barrika	Muriola-Barrikabaso-Barrikako San Telmo kostaldeko sektorearen PEP	16.200
2	Errenteria	Oiartzun ibaiaren inguruko PEP	30.000
3	Erriberagoitia	Erriberagoitiko Udala.	26.100
4	Valle de Trápaga-Trapagaran	Meatzaritza, altzairu, trenbide eta gerrako PEP	15.525
5	Zambrana	Portillako paisaiako PEP	17.100
6	Amorebieta-Etxano	Ibaizabal ibaiko ibarretako paisaia lantzeko PEP	26.100
7	Asparrena	Ajuria eta Urigoitia lantegiaren PEP	28.800
8	Getaria	Getariako udalerriko kostaldeko PEP	27.900
9	Muskiz	Kostaldeko meatzaritzako PEP	24.300
10	Zerain	Zeraingo PEP	25.650
11	Amurrio	Amurrioko PEP	16.200
12	Mutiloa	Peatza-TroikoPEP	24.300

Bigarrena.– Paisaiarako ekintza planak egiteko diru-laguntzak ukatzea ondoren zerrendatutako udalei, eta kasuan kasu ukatzeko arrazoiak:

	Udala	Ukatzeko arrazoa
13	Bilbao	Aurrekontuko kreditua amaitzea
14	Orexa	Aurrekontuko kreditua amaitzea
15	Ea	Aurrekontuko kreditua amaitzea
16	Larrabetzu	Aurrekontuko kreditua amaitzea
17	Busturia	Aurrekontuko kreditua amaitzea
18	Deba	Aurrekontuko kreditua amaitzea
19	Markina-Xemein	Aurrekontuko kreditua amaitzea
20	Tolosa	Aurrekontuko kreditua amaitzea
21	Urnieta	Aurrekontuko kreditua amaitzea
22	Vitoria-Gasteiz	Aurrekontuko kreditua amaitzea
23	Zalla	Aurrekontuko kreditua amaitzea
24	Urduña	Aurrekontuko kreditua amaitzea
25	Alegria-Dulantzi	Aurrekontuko kreditua amaitzea
26	Elgoibar	Aurrekontuko kreditua amaitzea
27	Salvatierra	Aurrekontuko kreditua amaitzea
28	Urretxu	Aurrekontuko kreditua amaitzea
29	Aramaio	Aurrekontuko kreditua amaitzea
30	Iruña Oka	Aurrekontuko kreditua amaitzea
31	Orio	Aurrekontuko kreditua amaitzea
32	Burgelu	Aurrekontuko kreditua amaitzea
33	Gorliz	Aurrekontuko kreditua amaitzea
34	Lekeitio	Epez kanpo aurkeztea

Hirugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko ondorioetarako.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 15a.

Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MIREN IZASKUN IRIARTE IRURETA.